

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

168/2017 Foru Agindua, maiatzaren 8koa, onartzen duena deialdia egitea eta kreditua gordetzea, aparteko almazariak erosteko 2017rako laguntzetarako

Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 29ko 31/2010 Foru Dekretuaren bidez (azaroaren 27ko 70/2012 Foru Dekretuz aldatua), aparteko almazariak erosteko laguntzak emateko oinarriak onartu ziren.

Aurretik aipatutako dekretu arautzaile horren 9. artikulua arabera, urtero dagokion laguntza deialdia onartu behar da. Deialdiaren barruan, eskaerak aurkezteko epea adieraziko da, baita dirulaguntzak emateko erabiliko diren kredituak ere.

Beharrezkotzat jotzen da aparteko almazariak erosteko laguntzen 2017rako deialdia onartzea.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aparteko almazariak erosteko 2017rako laguntzen deialdia onartzea, ondoko xehetasun hauen arabera:

– Eskaerak aurkezteko epea: HAMABOST egun, foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

– Kreditu erreserba: 2.000,00 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2017ko ekitaldirako gastu aurrekontuaren "Zaldi azizendak hobetzeko laguntzak" izeneko 40.1.02.43.00.770.00.01 partidaren kontura (xedapen erreferentzia: 17.1.17.105.1948/000).

– Laguntzen zenbatekoa: Deialdi honen barruan emango diren dirulaguntzen zenbatekoa gehienez ere 2.000,00 euro izango da, eta dagokion garaian xedatu eta ordainduko zaie diru kopuru hori deialdiaren oinarri arautzaileek eskatutako betekizunak betetzen dituzten laguntza eskatzaileei.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko maiatzaren 8a

Nekazaritza Saileko foru diputatua
EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria
MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE